

rama ta bere *Morfologia*'ren osopena da. Gure *Eusker*a'n azalduko da lan au ere.

3. A. Olabide beste lan eder baten egile azaldu zaigu. *Notas sobre la conjugación auxiliar del verbo guipuzcoano*. Ondo aztertu ditu giputx-aditzaren bazterak ta batez ere aditzari erasten zaizkion atzizki geitzaleak.

4. Eguskitza jaunak bere beste batzuen antzeko lan mamitsu bat dakar. *Morfología del verbo vizcaino*. Berak dakien bezela, ondo aztertu ditu Kapanağa'ren adizkera guziak.

5. Aita Madariaga'k Euskaltzandiar, onek eskatuta bidali dio, lekaide prantziskotařen etxetan arkitzen diran *kristau-ikasbide* zařen iragařitxo bat. Euskaltzaindiak eskerak demazkio ořen aguru egin duen erantzupenagatik.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzita, oiturazko otoitzaz, amaitu da batzařaldi au.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1923'ko Jořaila'ren 27'an.

Auręko batzařaldiko euskaltzain berak batzařaldi ontara datoz, Azkue maipuru dutela. Otoitz egin-da, ara zer erabaki dan.

1. Azkue jaunak Bahr jaunaren lana irakuři du. Auręko batzařaldikoaren beste zatia da.

2. Oraintsu Bilbo'n Jel-Alderdiak izan duen Batzar-Nagusian, Euskeraren aldezko beti izango dala aitortu du. Baita ere euskera beroni dagokion arau,

ikasbide ta edertasun-azalkunetan, arazo bikain abe-
tarako berariz aukeratuta dagon Batzarari mendeta-
suna zor izango diola. Euskaltzaindiak atsegin aun-
diz auxe entzun du.

3. Aita Intza'k dio, Iruña'ko apaiz-ikastetxeko
euskal-ikasleak datozen opor-egunetan, Iztegi Aun-
diaren alde zerbait egin nai dutela. Gogo beroz ikus-
ten du Euskaltzaindiak ikasle oien asmo edera.

Azkue jaunak erizkizundi bat jari beza, ikasle oiei
bidalita lan goragari ortan ekin dezaten.

4. Euskaleñiko Apaizburuai idatzi bear zaie: Eus-
kaltzaindian gertuko dizkiela, beren elizetan bear di-
tuzten bederatziruñen ta irakur-liburuak.

5. Aita Intza'k dasanez Aita Kaputxinoak aldizki
margodun polit bat argitaratzera dijoaz ume euskal-
dunentzat. Argitaratze onek galera batzuek izan de-
zazkike noski. Euskaltzaindiak galera oien ordaintza
Aita Kaputxinoai agintzen die.

6. Odon Apraiz, Aita Polikarpo Iraizoz ta Ger-
hard Bahr gure bekadunak batzaraldi batera betoz,
Iztegi Aundiaren lanetan beñi ta ikasbideak aitortu
ditzaten, atzeri-ikastetxetan ikusi dutenaz.

7. Nabaskues Pedro jaunarena, Aita Lhande'rena,
bere ordeko *Constantin* aukeraturik ta, Udal askor-
en ezkutitzak irakuñi dira.

Ta beste gairik etzala-ta, otoitzez amaitu da ba-
tzaraldi au.
